ELIKADURA PROIEKTU BAT LANDA INGURUNEAN GARATZEKO GIDA



Nekazaritza negoziorik jarri nahi duzu abian?

Hemen, jakin behar duzun guztia aurkituko duzu nekazaritzako elikagai arloko enpresa jarduera bat abiarazteko. Honatx lehen urratsak: zer ekoiztu nahi duzun aukeratzea, aholkularitza bilatzea eta prestakuntza jasotzea. Behin empresa eredua erabakitakoan, aurrera egin behar da. Ekin lanari!



▲ Kontsultatu hemen Gida guztia

AURRETIAZKO URRATSAK




Aukeratu nekazaritza produktu bat edo hainbat eta pentsatu eraldaketa prozesurik behar duten ala ez.

Egizu negozio plan bat. Horretarako, **Canvas eredua** bezalako tresna lagungarria izaten ahal zaizu, zer premia dituzun zehazten laguntzeko.



Bilatu aholkularitza INTIAn eta aholkatzen ahal zaituzten beste erakunde batzuetan, eta saia zaitez **prestakuntza** jasotzen. Era askotako tituluak daude LHn eta unibertsitatean, INTIAk ematen duen trebakuntza ikastaroaz gain.






Jaso informazioa eskuratzen ahal dituzun **laguntzez**:egun diren modalitateak, non eskatu eta zer baldintza bete behar dituzun ingurumenari eta beste arlo batzuei begira.

Ziurtatu zure ideia egingarria izanen dela. "Test gune" bat erabil dezakezu, behar izanez gero. Eta "**Bideragarritasun Plana**" egin behar duzu.




Aukeratu zure egitura juridikoa: banakako enpresaburua, sozietate zibila, anonimoa, mugatua, kooperatiba edo eraldakuntzarako nekazaritza sozietatea...





Ezagutu produktu guztiei buruzko **araudi orokorra**, produktu bakoitzerako araudi berariazkoa eta kalitateko markei dagokiena.

Baloratu **elkarteetan edo sindikatuetan kidetzeko** aukera



EKIN LANARI!

Hasi nekazaritzan hasteko tramiteak



Landu PROIEKTU bat




Eska itzazu behar diren LIZENTZIAK

Inskribatu zure negozioa dagozkion ERREGISTROETAN






Hartu alta JAEn eta Gizarte Segurantzan



Kontratatu zure jardueran behar diren ASEGURUAK



Inor kontratatu beharrean bazaude, jaso informazioa kontratazio prozesuaz eta kontratu motez.



Jakizu zein diren bete behar dituzun gainerako **arauak** datuen babesari, laneko arriskuei eta berdintasunari dagokienez.

Landu **marketin** estrategia bat zure produktuak saltzeko





Baloratu **zuzeneko salmentan** edo **merkataritza zirkuitu laburrean** aritzeko aukera.



Emakumea bazara, jaso informazioa laguntza programez, finantzabideaz, sariez eta emakumeendako berariazko elkarteez, zuen presentzia bultzatze aldera oso maskulinizatua dagoen sektorean.

Gobierno de Navarra · Nafarroako Gobernua · AGENDA 2030 · INTIA